

**Araudia.
Eguneko arreta-zerbitzua.
Osinetxe**

ATARIKO KAPITULUA

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, 22.1 artikuluan araututako lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuei dagokienez, adierazten du Gizarte Zerbitzuen Sistema osorako sarbidea ahalbidetuko dietela erabiltzaileei eta autonomiarekin, gizarteratzearekin eta gizarte-urgentziako edo -babesgabetasuneko egoerekin lotutako premiei erantzungo dietela, bereziki arrisku-egoeren prebentzioan eraginez.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, IV. kapituluko 32. artikularen eta hurrengo bidez, prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak arautzen ditu, eta euskal administrazio publikoek prestazio eta zerbitzu horiei dagokienez dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Lehen mailako arretaren kasuan, betebeharrak horiek I. eranskinean jasotzen dira.

Bizkaiko gizarte-zerbitzuen mapak, zorroaren dekretuan sartutako zerbitzu bakoitzerako, hurbiltasun-mailaren arabera zerbitzuak ezartzeko biztanleria-irizpide egokiak zehazten ditu mugapen geografikoak finkatuz, eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzuaren kasuan (1.7.2.) Eskualdeko mugapen geografikoa ezartzen da.

Araudi honen ondorioetarako, Osinetxeko zerbitzua arautu nahi da, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzu moduan.

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. *Zerbitzuaren ezaugarriak.*

Osinetxe Ermuko Udalak eskaintzen duen dispositiboa da, eta dutxa-, higiene- eta garbitegi-zerbitzua eskaintzen du.

Zerbitzuaren erabiltzaileek hitzordua eskatu ahal izango diote gizarte-langile bati, eskura dituzten eskubideei eta gizarte-baliabideei buruzko informazioa jasotzeko, bai eta beren egoera normalizatzeko kudeaketak egiteko orientabideak eman diezazkieten ere.

2. artikulua. *Hartzaileak.*

Hauek dira zerbitzua erabil dezaketen pertsonak:

1. Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak.
2. Ermutik igarotzen diren pertsonak.
3. Etxerik ez duten eta Ermuan bizi diren pertsonak.

3. artikulua. *Sartzeko betekizunak.*

Zerbitzua erabili nahi duten erabiltzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. 18 urtetik gorakoa izatea.
2. Intentsitate txikiko laguntza behar izatea.
3. Dagokion tratamenduari uko ez egitea, gaixotasunen bat izanez gero.
4. Portaera-nahasmendurik ez izatea edo zerbitzuaren funtzionamendua edo bertako bizikidetzak normala larriki nahas dezakeen portaerarik ez izatea, edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsuak izan daitezkeenak.
5. Zerbitzuaren berezko horniduren irismenetik eta aukeretatik kanpo osasun-laguntza espezializatu edo iraunkorrik behar ez izatea, hala nola gaixotasun infektzioa-kutsakorrak edo gaixotasun mentala.

4. artikulua. *Arreta-ordutegia.*

Zerbitzuaren arreta- eta erabilera-ordutegia 09:00etatik 20:00etara da.

5. artikulua. *Zerbitzua eskuratzea*

1. Zerbitzua bi bidetatik eskuratu ahal izango da:
 - a) Udaleko Gizarte-Zerbitzuen bidez.
 - 1º astelehenetik ostiralera, egun baliodunetan. 09:00etatik 14:00etara.
 - b) Udaltzaingoaren bidez
 - 1º Astelehenetik ostiralera, 14:00etatik 20:00etara.
 - 2º Jaiegunetan, 09:00etatik 20:00etara.
2. Zerbitzua bi espaziotan banatuta dago:

**Araudia.
Eguneko arreta-zerbitzua.
Osinetxe**

- a) Dutxarako gun bat.
 - b) Arropa garbitu eta lehortzeko gun bat.
3. Zerbitzu bakoitzerako ezarritako gehieneko erabilera-denbora honako hau izango da:
- a) Dutxatzeko: ordubete.
 - b) Arropa garbitu eta lehortzeko: 3 ordu.
4. Pertsona batek zerbitzu bakarra erabiltzen duenean, eskatutako espazioari dagokion giltza emango zaio.
5. Bi zerbitzuak elkarren segidan edo aldi berean erabiltzen badira, bi giltzak emango dira, eta itzuli egin beharko dira zerbitzuaren iraupen luzeeneko gehieneko aldia amaitu ondoren.
6. Zerbitzua emakume batek eskatzen duenean, ezin izango du beste inork eraikin osoa erabili.
7. Udalak higieine intimoko produktuak emango dizkie zerbitzua erabiliko duten eta hala eskatzen duten emakumeei.

Honako hauek hartuko dira higieine intimoko produktutzat:

- a) Konpresak.
- b) Tanpoiak.

6. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.

Zerbitzuaren erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:

- 1. Duintasunez eta errespetuz tratatuak izateko eskubidea, diskriminaziorik gabe generoagatik, adinagatik, jatorriagatik, administrazio-egoeragatik, sexu-orientazioagatik edo beste faktore pertsonal edo sozial batzuegatik.
- 2. Haien datu pertsonalen konfidentzialtasunerako eta babeserako eskubidea.
- 3. Zerbitzuko langileengandik hurbileko tratua, giza tratua eta tratu profesionala jasotzeko eskubidea.
- 4. Zerbitzuak eskaintzen dituen oinarritzko baliabideak eskuratzeko eskubidea, hala nola dutxa, garbigailua, lehorgailua eta higieine pertsonaleko beste elementu batzuk.
- 5. Zerbitzuaren funtzionamenduari, ordutegiei, erabilera-arauei eta eskura dauden baliabideei buruzko informazio argia eta ulergarria jasotzeko eskubidea.

7. artikulua. *Erabiltzaileen betebeharrak.*

Zerbitzua erabiltzen duten pertsonak betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Sartzeko giltzak itzultzea zerbitzua erabili ondoren, 5. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta.
2. Udaleko Gizarte Zerbitzuetako eta Udaltzaingoko langileekin errespetuz jokatzeko.
3. Instalazioak zaintzea.
4. Zerbitzua erabili ondoren, instalazioak garbi eta ordenatuta uztea.
5. Ate guztiak giltzaz ixtea, segurtasuna eta intimitatea babesteko, bai zerbitzua erabiltzen den bitartean, bai erabili ondoren.
6. Zerbitzua banaka erabiltzea
7. Alkoholik, tabakorik, edo legez kanpoko beste substantziarik ez kontsumitzea.

II. KAPITULUA **Arau-hausteak**

8. artikulua. *Arau-hauste arinak.*

1. Giltzak aurreikusitako lekuan eta orduan ez itzultzea.
2. Instalazioak ez zaintzea eta txukun eta garbi ez uztea.
3. Ate guztiak giltzaz ez ixtea, segurtasuna eta intimitatea babesteko, bai zerbitzua erabiltzen den bitartean, bai erabili ondoren.
4. Espazioa banaka ez erabiltzea.
5. Udal-zerbitzuei ez jakinaraztea zerbitzua erabiltzean gerta daitezkeen gorabeherak.
6. Arropa edo beste tresna pertsonal batzuk bertan uztea.

9. artikulua. *Arau-hauste larriak.*

1. Alkohola, tabakoa edo legez kanpoko beste substantzia batzuk kontsumitzea.
2. Udal-zerbitzuen beste erabiltzaile edo profesional batzuk errespetuz eta edukazioz ez tratatzea.
3. Hiru arau-hauste arin egitea.

10. artikulua. *Arau-hauste oso larriak.*

1. Hiru arau-hauste larri egitea.

**III. KAPITULUA
Zehapenak**

11. artikulua. *Zehapenen mailakatzea.*

1. Arau-hauste arinek ohartarazpen bat izango dute, eta astebetez debekatuta izango dute zerbitzuan sartzea.
2. Arau-hauste larriek hilabete batez zerbitzuan sartzeko debekua ekarriko dute.
3. Arau-hauste oso larriek hemezortzi hilabeteko debekua izango dute zerbitzuan sartzeko.

12. artikulua. *Zehapen osagarriak.*

Bi arau-hauste oso larri edo gehiago eginez gero, zerbitzurako sarbidea betirako galduko da.

13. artikulua. *Kautelazko zehapenak.*

Zehapen-prozedura hasten denetik eta prozedura ebatzi arte, zerbitzua mugatu ahal izango da.

Neurri hori interesdunari jakinarazi beharko zaio, prozeduraren hasiera-jakinarazpenarekin batera.

Xedapen gehigarri bakarra.

Instalazioetan utzitako tresnak garbiketa-zerbitzuak bildu eta birziklatuko ditu.

